



3 IRTEERA

Sorginen ibilbidea ezagutzeko aukera, Oinatzen eskutik

Oinatz taldeak Zugarramurdi eta Sarako kobazuloetara egun osoko irteera antolatu du martxoaren 11rako. Gainera, Zugarramurdiko Sorginen museoa ere bisitatuko dute. Joan nahi dutenek Tkakunen eman beharko dute izena.

4 ELKARTASUNA

Saharar herriaren lagunek Udalaren jarrera eskertu dute

Saharar herriaren egoeraren inguruko proposamena onartu zen azken udalbatzarrean, ordezkariak duten alderdi guztien onespenerekin, eta eskerrak eman zieten Saharar herriaren lagunek elkarteak eta herri honekin lotura duten herritarrek prentsaurrekoan.

5 AURKEZPENA

Presoen alde lan egingo du Herrira ekimen zabalak

Asteartean aurkeztuko da Lasarte-Orian eskualdeko preso eta iheslariak pixkanaka etxeratzeari alde dauden herritarrek elkartzeko dituen Herrira mugimendu berria.

Parte-hartzea auzoz-auzo

Udalak auzoz-auzoko bilerak hasiko ditu Martxoaren 1ean herritarrekin komunikazio bide zuzenago eraikitzeko asmoz

Lasarte-Orian herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz udalak bilerak egingo ditu auzoz-auzo. Parte-hartze prozesua hiru txandatan banatu da eta horrela hasiera batean hiru bilera egingo dira auzo bakoitzean. Lehen bilerak martxoaren 1etik 12ra burutuko dira eta ondoren bigarren txanda bat zabalduko da martxoaren 20tik 28ra. Lehena Zabaletan izango da martxoaren 1ean 19:00etan bizilagunen elkarteetan.

Alaitz Mendizabal Parte-Hartze batzordeko buruak eta Larraitz Sarobe teknikariak aurkeztu zuten herriko auzotan zabalduko den bilera prozesuaren nondik norakoa.

Guztira hasiera batean hiru bilera burutuko dira auzo bakoitzean. Horrela, lehenengo bileran, udal ordezkariak, Pablo Barrio alkatea barne, proiektuaren aurkezpena egingo dute eta herritarren ideia eta proposamenak jasoko dituzte. Bigarren bileran berriz, proposamen guztien artean, herritarrek lehentasunak finkatu beharko dituzte eta azkenik, hirugarrenean, denbora epe luzeago bat tarteko, hartuko dira erabakiak.

Honetan udalak eta auzotarrek egindako proiektu ezberdinen emaitzak aurkeztu eta aurrera eramango direnak erabakiko dira.

Auzoka

Herrira zuzen auzotan, banatu du udalak eta lehen bilera



Larraitz Sarobe parte-hartze teknikaria eta Alaitz Mendizabal batzorde burua bilera prozesuaren aurkezpenean.

Zabaleta, Zabaleta Berri eta Goiegi zonaldeko bizilagunek izango da Martxoaren 1ean auzo elkarteetan 19:00etan.

Jarraian beste auzoen txanda izango da taulan azaldu moduan. Hala ere, herritar guztiak prozesu honen berri izan dezaten udalak etxetara bidaliko du hauen inguruko informazio guztia.

Elkarlana

Alaitz Mendizabalen hitzetan "udalak komunikatzeko ohitura bat bultzatu nahi du" izan ere orain arteko joerari dagokionez, "Udaletxean egiten diren eskaerak nahiko indibidualak izaten dira eta horregatik, garrantzitsua da horrelako bilerak egin eta behar indibidualak komunean jartzea".

Larraitz Sarobek azaldu moduan, egun herrian dauden hiru auzo elkarteek ondo hartu dute ekimena eta beraiekin elkarlanean arituko da udala.

Azpitarratzekoa da bilera hauen helburua auzoak indar-

tzea ere bAdela, "kolektiboki funtzionatzen hasia bultzatzea bilatu nahi du udalak tarteka auzolana ere sustatzeko bidea zabaldu daiteke". Horregatik udaletik herritarrek hauetan parte hartzeko deia egiten dute.

Auzoa	Lekua	1 Batzarra	2 Batzarra
Zabaleta / zabaleta-berri / Goiegi	auzo elkarte	Martxoak 1	Martxoak 20
Oztaran / Zatarain / Kaxkarro	Lanbide eskola	Martxoak 2	Martxoak 21
Basaundi / Oria	auzo elkarte	Martxoak 5	Martxoak 22
Goikale / Zumaburu	Udal euskaltegia	Martxoak 6	Martxoak 23
Atsokabar / Urbarte	Garaikoetxea	Martxoak 7	Martxoak 26
Sasoeta / Loidibarren	Ikastetxea	Martxoak 9	Martxoak 27
erdigunea	Kulturetxea	Martxoak 12	Martxoak 28

Ordua 19:00

FORMACIÓN EN BIOMECÁNICA

Una revisión en la evaluación y corrección de desequilibrios musculares

SESIONES DE ACTIVACIÓN MUSCULAR Y REFUERZO

ACTIVACIÓN MUSCULAR

ACTIVACIÓN MUSCULAR TRAINING

GIARREN AKTIBAZIO ETA INDARTZE SAIOAK

GIARREN ETA ARTIKULAZIOEN ARAZOTAN ADITUAK

AZTERKETA BIOMEKANIKOETAN ADITUAK

Bias de Lezo, 2 Baxua. 20160 Lasarte-Oria Tel.: 607 79 72 05 www.activacionmuscular.com

Neure kabuz



Unai Muñza

Ni naiz!

Ni naiz mila bederatzirehun eta laurogeita bian, Ama Birjinaren egunean eta lau kiloren jiran erditu nindutena. Bost urte betetzera-ko bertsolari plantak egiten zituen eta zazpi urtetatik hamalaura korbatu irlandes bat jantzita ikasi zuen huraxe, ni naiz. Ikasle alperra, orduko irakasleen begitan, baina bere bidea egiten asmatu duena, kaleko unibertsitatean master intentsiboak gaindituta.

Ni naiz euskararen aldeko pankarta baten atzean erderaz mintzatu, feminismoaz mahai ingurutan parte hartu eta matxistakeriatan aritua, emozioen defentsan jardun eta negarra izkutatu duena, guraso on izatearen garrantziak filosofatu duen seme eskasa... Ni naiz!

Hori eta gehiago naiz ni. Gizartearen inkoherentzia eta, apaizen gisan, esatetik egitera dagoen alde nabarmenaren duen politiko itxurako naufragio bat gehiago. Besteek maiz nazaten, nik eraikitako pertsonari baten atzean izkutatu eta ez naizena naizela sinestra iritsi dena, nire gezurrari darion zimaurre usaina antzematen hasi den gizona. Tamalez, gure baitan erein dizkiguten eta ditugun moral eta arauen mende bizi garen gizarte lokartu honetan, konturatzea bera, ez da gutxi.

Nintzenaren, naizenaren eta izango naizenaren zubia da denbora. Hori bai, nik igaro behar dudana, ausardiaz eta desioz. Gure alde ilunenak erakusteko beldur gara, epaiketa popular bat egingo digutelaokan, baina garena onartzea bezalakorik ez dago pausok norabide zuzenean emateko.

Gutako bakoitzak, berez, zabaltzen dugu hurkoari erakarria zaion argi printza, baina kontrakoa sinesten dugu, eta disimulatzen bizi gara. Ni hau ere banaiz. Zu nor zara?

Zorion agurrak



Eire

Zorionak printzesa!!! Ondo pasa. Bi muxu handi Aimar, aitaxo eta amatxoren partetik.



Richard

Zorionak osaba-izeba, Imanol, Pablo eta Maideren partetik.



Ainhize

Zorionak! Sei marrubi muxu gurasoen eta Maieren partetik.



Vero

Zorionak amatxo! Aurtengoa bai opari polita.



Marga

Zorionak polita! Pausoka pausoka ospatu-ko dugu elkarrekin Jalguneko lagunek.



Josune eta Markel

Zorionak familikoaren partetik eta ondo pasa zuen egunean!



Udane

Zorionak! Txokomarrubizko hiru muxu guraso, Malen eta familia guztiaren partetik.



Andoni

Zorionak zure bigarren urtebetetzearen txapeladun. Muxu bat, aita eta amaren partetik.



Iraia

Zorionak sorgintxo!!!! Ondo pasa zure urtebetetzearen. Muxu pottoloa neba eta gurasoen partetik.



Garazi

Abeeeeeeee! Zorionak eta primeran pasa etxeokoen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

• Aiara Lopez Gonzalez, otsailaren 12an.



Heriotza

• M^{te} Teresa Illera Casado, otsailaren 23an.
• Manuel Cincunegui Alcorta, otsailaren 19an, 85 urte zituela.



Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltekinak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 24 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 25 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 26 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 27 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 28 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 29 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 1 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxea alokatzen dut Zumaburuan. Hiru logela eta balkoia ditu. Partikularra naiz. Harremanetarako, 660 549 308.
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako deitu 943 363 524 telefono zenbakia.
- Logela bila nabil, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta ahal izanez gero errolda aukerarekin. Harremanetarako zenbakia, 626 256 051.
- Bi logelako etxea salgai Hernani erdian. Hamabost urte ditu. Harremanetarako deitu 685 369 952.

Salerosketak

- Daewoo Lanos kotxea salgai 650 eurotan. Tel. 672 113 451.

Lan-eskariak

- 44 urteko emakume eskaintzen da etxeak garbitu edo pertsona helduen etaumeen zaintza egiteko. Baserri edo etxeetara eta Euskal Herriko edozein probintziara joateko prest. Harremanetarako zenbakia, 608 643 490.
- Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrizar trebatua den gaztea eskaintzen da. Interesatuak 679 526 305 edo 943 536 208 telefono zenbakira dei dezatela.
- Pertsona adinduk zaintzeko emakume eskalduna eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 654 763 886.
- Emakume eskalduna, arduratsua eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko hurrak zaintzen, garbiketako edo etxeokoen partetik. Harremanetan jartzeko: 677 356 413.

- Arratsalde 14:00etatik 19:00etara, emakumea eskaintzen da adinduk zaindu, etxeokoen lanak egin edota bestelako garbiketako lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. 629 871 605 Mirna.
- Emakumea eskaintzen da etxeokoen lanak edo helduak zaintzeko. Orduka edo egun osoz eta lurraldeko edozein tokitan. Harremanetarako zenbakia, 674 603 688.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketako lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeokoen lanetarako. Telefono: 648 243 984.
- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketako lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeokoen lanetarako. Harremanetarako, 653 319 644.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

KULTUR IRTEERA

Oinatz taldea Zugarramurdiko eta Sarako leizeetara doa

Nafarroa eta Lapurdi arteko mugako kobazulo ikusgarrietara egingo dute txangoa eta sorginen museoa ezagutuko dute martxoaren 11n

Oinatz taldeak ingurura edo urrunera irteerak antolatzen jarraitzen du, beti ere tokiak eta bertako ohiturak ezagutzeko xedearekin. Hurrengo txangoa martxoaren 11n izango da egun guztirako, hurrenez hurren, Nafarroa goiaren eta Lapurdiren arteko mugan dauden Zugarramurdi eta Sara herriak eta bi herri hauetako kobazuloak ezagutzera. Zugarramurdiko sorginen etxea ere bisitatuko dute. Irteeran parte hartu nahi duenak Ttakunen eman beharko du izena.

Urtarrilean Donostiako alde zaharra eta bere historia mardula ezagutu eta gero, Lasarte-Oriako Oinatz taldeak hurrengo irteera Nafarroa eta Lapurdi aldera egingo du martxoaren 11n, besteak beste Sara eta Zugarramurdiko kobazuloak ezagutzera.

Oinatz taldeak prestatu duen egitarauaren arabera, autobusez joango dira Zugarramurdira eta lehenengo, bertako kobazuloa ikusiko dute. Ondoren nahi dutenek Sarara oinez joateko aukera izango dute, gutxi gorabehera ordubeteko ibilalditxo izango da eta nahi ez dutenek autobusa bertan izango dute zain Sarara abiatzeko.

Lapurdi herri honetako "leze" ezagunak bisitatu-

dituzte ondoren. Zugarramurdira autobusez itzuli eta bertan bazkalduko dute, etxetik norberak eramandakoa. Gero arratsaldean Zugarramurdiko Sorginen Museoa ezagutuko dute.

Zugarramurdiko kobazuloa eta museoko sarrerak 5,5 euro balio du (haurrek 3 euro ordainduko dituzte) eta Sarako kobazuloak ere berdina, 5,5 euro ordainduko dituzte nagusiek, eta 3 euro haurrek.

Sarako leizea ikusteko gida baten laguntza izango dute eta sarrera berberarekin ondoko museoa eta parke megalitikoak ere bisitatu daitezke. Haurrentzat hurbil Etxola Abere Parkea ere zabalik da.

Zugarramurdiko "Sorginen leizea" ere ikusgarria da. 10 metro altuera eta 120 metro-

ko luzera duen Barrunbe nagusiaren erditik "Infernuko erreka" igarotzen da. Beste bi gune txikiago ere baditu kobazuloak.

Sorginen kontuak

1609-1614 artean Zugarramurdin burutu zen Inkisizio prozesuan sorginkeria frogatzat erabili zituzten bertan egiten ziren ospakizunak eta horren ondorio da "Sorginen Leizea" izena. 53 lagun auzipetu eta Logroñora eraman zituzten. Horietatik 11 erre egin zituzten.

XVII. mende hasierako getakari haiei buruzko xehetasun eta bitxikeriak ezagutuko dituzte martxoaren 11ko txangoa joaten direnek Zugarramurdiko Sorginen museoa. Garai hartako bizimodua nolakoa zen ere erakusten da 2007tik zabalik den museoa.

Izen ematea Ttakunen

Oinatzek antolatutako autobusa martxoaren 11n goizeko 9:00etan aterako da Jalgi aurretik. Autobus-txartelak 12 euro balio du, 10 euro ordainduko dituzte haurrek eta Ttakuneko bazkideek. Ttakuneko bulegoan daude salgai martxoaren 8ra bitartean.

ANDALUZIARREN JAI EGUNA



Andaluzia Eguna ospatuko da igandean

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak Andaluziaren eguna ospatuko du igandean. Nahiz eta berez, erkidegoaren eguna, otsailaren 28an izan, egun batzuk aurreratu eta igandean, otsailaren 26an, hainbat ekintza antolatu ditu elkarteak.

Ohikoa den moduan, Zumaburuko Arantzazuko Amaren parrokian egingo den roziio-mezarekin emango diote hasiera egun bereziari, 13:15ean eta bazkari herrikoa egingo dute elkartearen bertan, 14:30ean aldera.

Eta egunari amaiera borobila emateko, 17:30ean Sentimiento taldearen musika emanaldiaz gozatu ahal izango dute elkartearen egoitzara gerturatzeko diren elkarte kide eta herritarrek.

KIROLA

Ehiza txapelketa atzeratu egin da

Buruntz-Azpi elkarteak ehiza txapelketaren data aldatu duela jakin arazi nahi die herritarrei. Lehiaketa martxoaren 11ra, igandera atzeratu da. Ordua eta lekua dagokionez, ez dago aldaketarik, beraz, 9:00etan hasiko da Buruntza mendiko magaletan.

Zakurrekin egiten den ehiza txiki lehiaketa txapelketa da eta elkarteak bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezaketela gogoratzeko da elkarteak. Eta atzerapen hori dela eta, txapelketan izena emateko epea irekia egongo da datorren martxoaren 8a ostegunera bitartean.

BIDEO EMANALDIA

Sorgin Jaien inguruko hausnarketaren ondorioak aurkeztuko dira Xirimirin

Sorgin Jaien inguruko hausnarketa egin dute hainbat herritarrek urtarrila eta otsailan, eta ondorioak kaleratuko dituzte gaur ostirala arratsaldeko 19:00etan Xirimiri elkartearen egingo den ekitaldian. Hasteko Sorgin Jai buruzko bideo bat eskainiko da, ondoren aurreko asteotan izandako eztabaiden eta hartutako erabakien berri emango dute, azkenik nahi dutenek bertan egingo den afari batekin amaitzeko.

Hainbat gaztek hartu du parte hiru saiotako hausnarketan, batetik aurreko hamar urtetako jarduna aztertu eta bestetik etorkizunerako, asmo, helburu eta eredia finkatzeko helburuarekin. Gaur jakingo dira prozesuaren ondorioak.

GIZARTEA



Familia-harrera beharrezkoa

Gipuzkoako Familia Hartzailen Beroa elkarteak familia-harreraren inguruko hitzaldia eskaini zuen bart Villa Mirentxun. Gipuzkoan iaz 2.000 haur inguru hartu ziren eta hauetako bi esperientzia entzun ahal izan zituzten bertaratu-takoek. Prozesu honek umeentzat duen garrantziaz ohartarazi nahi izan zen familia gehiago parte hartzea animatu daitezke.



Zugarramurdin, bertako leizezuloa eta Sorginen museoa bisitatuko dituzte martxoaren 11ko irteeran parte hartzen dutenek.

Saharar herriarekiko elkartasuna adierazi zuen Udalak

► Otsailaren 27an, Saharar Errepublika aldarrikatu zen egunean, Mendebaldeko Saharako bandera jarriko da Udaletxean eta kontzentrazioa izango da arratsaldean Udaletxe aurrean

Azken Udaltzarrean saharar herriaren egoera azaltzen zuen mozioa atera zen aurrera alderdi guztien oneparekin. Lasarte-Oriako Udalarri eta alderdiei eskerrak emateko Lasarte-Oriako Saharar herriaren lagunak elkar- teak eta Saharar herriarekin lotura duten hainbat herri- tarrek prentsaurrekoa eskaini zuten asteartean. Honetan, mozioa azaltzeaz gain, otsailaren 27an egingo diren ekimenak jakitera eman zituzten.

Nerea EIZAGIRRE

Saharar herria Aljeriako Tindouf-eko kanpamendu- duetan erbesteratutak edo Mendebaldeko Sahara okupatuan bizi da duela 36 urtetik hona. Otsailaren 27an, Saharar Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrena dela eta, Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Sahararekin bat elkar- teak hainbat herrietara mozioa bidali zuen.

Honekin bat egin zuten Lasarte-Oriako Saharar herria- ren lagunak elkar- teak eta Bil- duko zinegotziek Udaltzarrean aurkeztu zuten. Aho batez onartu zen.

Horregatik asteartean Saharar herriaren lagunak elkar- teak eta Saharar herria- rin lotura duten hainbat herri- tarrek prentsaurrekoa eskaini zuten batzari eskerrak eman eta mozioan agertzen diren bi ekintza jakitera emateko. Bertan egon zen Pablo Barrio alkatea ere.

“Aurrerapausu handia da Udal batek horrelako mozioa

onartzea,” adierazi zuten Saharar Herriaren lagunak taldeko kideek eta “eskerrak eman nahi dizkiegu Bilduri Udaltzarrean mozioa babesteagatik eta alderdi guz- tiei”.

“Ongi dator Sahar herria- ren egoera gogoratzen duen edozein ekintza egitea,” azpi- marratu zuten. “Gaia ez da ahaztu behar errefuxiatuek Aljeriako basamortuan daude eta Mendebaldeko Saharako egoera ere ez da erraza,” aipatu zuten.

Errefuxiatu kanpamendu- e dagokionez, “urtean behin janaria karabana egiten da, baina kontuan izan behar da basamortuan bizi direla eta haien bizitzeko baldintzak ere ez direla egokienak”.

Itxaropenik ez

Onartu zen mozioan adieraz- ten zenez, duela bi urte, Nazio Batuen Erakundeak Christopher Ross Estatubatu- arra Mendebaldeko Sahararako gatazkarako ordezkari berezi izendatu zuenean eta honek



Saharar herriaren lagunak elkarteko kideak, Pablo Barrio alkatea, Tomas Arruti eta Gorka Lasak aurkeztu zuten mozioa.

Magrebera egin zuen bidaiari esker Marokoko gobernu eta Frente Polisarioaren arteko negoziaketak desblokeatuko zirela esperantza izan zuten Mendebaldeko Saharako lurralde okupatu- etan eta Tindoufeko errefuxiatu kanpa- menduetako Sahararren artean.

Baina Marokoko gobernu- ak azken urtean izan duen jarrerak itxaropen hori itzal- tzea ekarri du.

Egoera latza

Mozioan salatzen zenez,

“Mendebaldeko Saharako biztanleen giza eskubideen aurkako erasoak larriagotzen doaz”.

Erasoak, atxiloketak, tortu- rak, bortxaketa, desagertzeak eta deportazioak ohikoak dire- la gogora arazten da mozioan eta helburu bakarra dutela azpimarratzen da, Marokoko gobernuaren alde- bakarreko autonomia plana ezarri eta Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio- rako eta independentziarako eskubidea behin betiko lurperatzea. Eta honen adibide, Gdeim Izikeko kanpamenduko gertaerak dira.

rekin bat egiten zuen.

Era honetara, Mendeba- ldeko Saharako lurralde oku- patuetan etengabe gertatzen diren eskubideen zapalkuntza eta giza eskubideen aurkako eraso- en salaketa eta gaitzes- pena adierazten zuen Udalak.

Era berean, Tindoufeko errefuxiatu kanpamendu- tan bahitutako hiru kooperatza- ileak Rosella Urru, Enric Gon- yalons eta Ainhoa Fernandez del Rincon gogoan izan eta elkartasuna adierazten zaie eta berehala aske utzi ditza- ten eskatzen da mozioan.

Saharar Errepublika

Bestalde, hurrengo astelehe- nean, otsailaren 27an, Saha- rar Errepublika Arabiar Demokra- tikoa aldarrikatu zeneko urteurrena ospatzen da.

Mozioan adierazten den moduan, Lasarte-Ori- an bi ekintza egingo dira 36. urte- ren hau gogoratze- ko. Bate- tik, Mendebaldeko Saharako bandera zintzilikatuko da egun osoan zehar Udaletxe- ko balkoian.

Bestetik arratsaldeko 19:30ean, “Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendeba- ldeko Sahararentzat” lema- pean Udaletxe aurrean egingo den elkarretaraztea dago.

Saharar herriaren lagunak taldeak deialdia egiten die herritarrei bertan bildu eta herri honek bizi duen egoera sala dezaten.



Lasarte-Oriako Udaltzarrean onspena eman zion Saharar herriarekiko elkartasuna agertzen duen mozio honi.

Herrira mugimendua sortu da

- ▶ Lehen helburua euskal presoan aurkako salbuespen neurriak indargabetzea izango da
- ▶ Datorren asteartean 19:00etan Villa Mirentxuko aretoan egingo du herriko aurkezpena

Euskal preso eta iheslari politikoak pausoz pauso etxera ekartzeko bidea zabaltearen alde lan egingo duen "Herrira" izeneko mugimendua asteartean aurkeztuko da Lasarte-Orian. Bere lehen helburua presoek ezartzen zaizkien salbuespen neurriak indargabetzea izango da, gaixo dauden presoak eta zigor osoa edo hiru laurdenak beteta dituztenak askatzea alegia, eta Villa Mirentxu 19:00etan egingo den bilera helburu hauekin bat egin duten herritar guztiak luzatu die gonbidapena.

Jon ALTUNA IZA

Mugimendu zabala izatea da Herrira ekimenaren xede nagusia, pentsamendu eta iritziz ezberdina duten herritarrek bere baitan bilduko dituen mugimendua eraiki nahi dute Lasarte-Orian. Bultzatzaileen ustez, azken hilabeteotan Euskal Herrian ireki den garai berrian herritar gehienek egiten dute bat eskaera horiekin eta eztabaida ireki nahi dute herritarren artean. "Jendearengana iristeko, gaia kalean egon dadila".

Esan bezala Herriraren lehen helburua gaixo dauden presoak etxeratzea eta salbuespen neurriak kentzea da, dispersioa, bizi arteko kartzela zigorra (Parot doktrina), isolamendua eta bakartzea indargabetzea alegia. Honekin batera euskal presoak prozesuan parte hartzeko aukerarekin Euskal Herriko kartzelatan elkartzeko, eta gatazkaren konponbidearekin



Preso eta iheslariak etxera ekartzeko helburuarekin bat egiten duten herritarren mugimendua sortuko dute asteartetik aurrera "Herrira" izenarekin.

batera preso eta iheslariak etxeratzea.

Herrira mugimenduaren egiteko nagusia, "sentsibilitate eta izaera ezberdina izanik ere, printzipio eta helburu hauekin bat egiten duten herritarrek bildu" eta aipatutako helburuen alde jarduteko espazioa eskaintzea da.

Parot doktrina

Honekin batera, mugimenduaren bultzatzaileek aurreratu dutenez presoan inguruko informazioa bildu eta plazaratzea izango da beste egitekoa, batez ere eskubideen urraketak daudenean. Lasarte-Oriako lau presok jarraitzen dute kartzelan Parot doktrina ezarri zaielako, Ina Orotegi, Mitxel

Turrientes, Txurdi Rezabal eta Niko Franciscok, eta beste bik ere, Xanti Arrospide eta Juan-kar Balerdik 20 urte baino gehiago bete dituzte kartzelan eta laster egongo dira egoera berean. Bestalde, ofizialki ez dago gaixo, diagnostikorik egiten ez diotelako, baina Ibon Fernandez-en egoera ere kontutan izango du Herrirak.

Herrira

Preso hauek etxera ekartzearekin ados dauden herritar guztiak dute lekua Herrira ekimenaren pentsamendu eta izaera desberdinak izan arren.

"Ekarpen eta borondate guztiak, konpromiso handi eta txikiak" atek zabalik dituzte: "proposamen guztiak dira beharrezkoak". Talde bat osatu nahi dute herrian zabaltearen hasteko, herriko txoko guztietara heltzeko helburuarekin, bakoitzak bere eremuan lan eginez.

Guztiak daude gonbidatuta asteartean arratsaldeko 19:00etan Villa Mirentxu azpiko aretoan egingo den aurkezpen eta bilerara.

Azken ostiraleko agerraldia

Hain juxtu datorren asteartean otsailaren 28an beteko dira bederatzita urte Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi, Juan-kar Balerdi presoaren ama eta anaia, Almeriako kartzelara bidean izan zuten istripu batean hil zirenetik eta gaur gogoratuko da gertaera.

Hileko azken ostiralero bezala, Udaletxe aurrean presoan alde elkartzeko deia zabaldu du, kasu honetan Herrira ekimenak, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiren istripua gogoratzeko.

Etxerat presoan senideen elkarteak bere bidea jarraituko du baina Lasarte-Oriako Herrira izango da gerora hileko azken ostiraleko kontzentrazioaren ardura hartuko duena.

Mugimendu berriaren ezaugarri nagusiak

Herrira mugimendua bere ezaugarriak jakinarazi ditu: berria da eta berritzailea izan nahi du, "gaur egungo euskal jendartearen errealitatean errotu eta bertatik bertara ari" eta noski, informazioa eta komunikaziorako teknologiek ematen dituzten aukerak baliatuz. Herritarren mugimendua izango da, beraz hauen parte hartzea bideratuko duena, aldarrikapen eta helburu argiak dituen, "horiekin bat egiten duten

guztiak bildu eta gaur ados ez daudenak bihar egon daitez" ahaleginduko dena.

Denetarikoa jendea bilduko duena beraz, "ez gara pentsaera bakarrekoak, preso eta iheslariak etxera ekartzeko helburuak batzen baikaitu hemen". Eta eraginkorrak izateko, helburu horiek lortzeko, kideen ardura eta konpromiso sendoa izango duena.

Herrira berak zabaldu duen beste ezaugarri bat, Euskal Herriko mugaz harago

izango da, "euskara izango da gure hizkuntza nagusia, baina Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontutan hartuko dugunez, gaztelera eta frantsesa ere erabiliko ditugu. Horez gain nazioartean jarduteko lekuan lekuko hizkuntzak erabiliko ditugu".

Mugimendua euskalduna eta eleanitza izango da beraz, nazioartean elkartasun eta elkarlana bultzatuko duena, Euskal Herriko mugaz harago iritsiko dena, alegia.



Lasarte-Oriako sei presoek 20 urte baino gehiago daramate kartzelan.

JUDO A.

LOKEko gazteen domina uzta handitzen doa

Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan hainbat domina eskuratu dituzte

Azken aste hauetan LOKEko judo ataleko gazteak txapelketaz txapelketa ibili dira. Judoaz gain, sanbo eta borroka ere lehiatu dira eta guztietan emaitza paregabeak lortu dituzte. Gainera taldeko lau gazte 'etorkizuneko kirolari' izendatu dituzte.

Nerea EIZAGIRRE

Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketetan lehiatu dira LOKEko judokak eta taldeko garaipen zerrenda handitu dute.

Igande honetan, otsailaren 19an, Asier Sagastik senior mailako Espainiako txapelketa sailkapen saioa izan zuen Iruñean.

Sagastik brontzezko domina lortu zuen txapelketan. Bere entrenatzailearen hitzetan, "txapelketa ona egin du, nahiz eta, nire uztez, bere maila altuago den".

Larunbatean, otsailaren 18an, junior mailako Euskadiko txapelketa izan zen Lezon eta bi zilarrezko domina eta bi brontzezko ekarri zituzten herri-erjudokak.

Amaia Curiel eta Josu Olmos izan ziren haien pisuan bigarren postua eskuratu zutenak. Brontzezko dominak, aldiz, Esteban Martinez eta Mario Garridorentzat izan ziren.

Gorka Aristegi taldeko entrenatzaileak azaldu digunez, "emaitza hauekin Amaia eta Josu sailkatu dira Espainiako txapelketako iparraldeko sailkapenerako".

Euskadiko txapelketekin jarraikiz, otsailaren 11ean, kadete mailako txapelketa izan zen.

Honetan Oscar Garrido judoka gaztea izan zen eta urrezko domina eta Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zituen.

Aristegi entrenatzaileak azaldu duenez, "finala besterik ez zeukan baina kriston borroka egin ondoren bere saria lortu zuen".

Gipuzkoako Sub 23 txapelketan izan zen Lezon otsailaren 12an eta bertan lan ona egin zuten LOKEko gazteak.

Asier Sagastik eta Mario Garridok haien pisuko txapel-dun titulua eskuratu zuten, Josu Olmosek zilarrezko postua eta Esteban Martinezek, berriz,



Gorka Aristegi entrenatzailea, Amaia Curiel, Oscar Garrido, Esteban Martinez, Mario Garrido eta Josu Olmos judoka gazteekin.

brontzezko domina eskuratu zuen.

Urtarrilaren 29an, berriz, Gipuzkoako kadete txapelketa izan zen Hernanin.

Honetan, Oscar Garrido gazteak lehengo postua eskuratu zuen eta Asier Zubizarretak 5. postua.

Sanbo eta borroka

Baina judoaz gain, sanbo eta borroka ere egiten dute LOKEko mutilek eta asteburu honetan Gasteizen egon ziren Euskadiko txapelketan parte hartzen.

Mario Garrido eta Amaia Curiel gazteek bi modalitateetan lortu zuten urrezko domina, Esteban Martinez eta Josu Olmosek, aldiz, sanbon bakarrik.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu duenez, "guztiak sailkatu dira Espainiako txapelketarako Euskadiko txapel-dun titulua eskuratu ondoren".

Bestalde, Amaia Curiel otsailaren 12an, borroka olimpikoko txapelketan izan zen Murtzian.

Honetan, brontzezko domina lortu zuen hiru borroka gari-tu ondoren.

Etorkizuneko kirolari

Gainera, LOKEko lau kirolari-iaz lortutako garaipen guztien-gatik "Etorkizuneko kirolari" izendatu berri ditu Foru Aldundiak.

Amaia Curiel, Leire Zubizarreta, Mario Garrido eta Josu Olmos izan dira zortekoak eta sariarekin batera, diru laguntza bat izango dute maila horretan lehiatzen jarraitzeko.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 25

Elorri, Alegi, 10:00etan

Inxurre-Texas Lasartearra
I. kadetea, kopa

Michelin, 10:30ean

Ostadar-Antiguoko
Kadeteen Ohorezko maila

Alustiza, Segura, 12:00etan

Lengokoak-Ostadar I. infantilak, kopa

Cesar Benito, Donostia, 12:30ean

Lengokoak-Ostadar Infantil txiki, kopa

Michelin, 13:30ean

Ostadar-Tolosa Emakumezkoen Liga, igoera

Michelin, 15:30ean

Texas Lasartearra-Aiñara
I. erregionala, kopa

Ugalde-Ventas, Iruñe, 15:30ean

Mariño-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Michelin, 17:15ean

Ostadar-Munibe Erregional Gorena

Martutene, Donostia, 17:30ean

Amara Berri-Ostadar I. erregionala, igoera

Artia, Iruñe, 17:30ean

Mariño-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila

Igandea 26

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Internacional Alebinak, kopa

Michelin, 11:15ean

Ostadar-Lazkao I. Kadetea, igoera

Berio, Donostia, 15:45ean

Antigua Luberrri-Texas Lasartearra
I. jubentia, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 24

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

19:30ean, El Bar de Mau-Oria kristaldegia

20:20ean, Illum-Trumoaia

21:10ean, Viña del Mar-Indaux

Larunbata 25

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10ean, Ilargi-ISU Leihokak

10:10ean, Ayete-Balardi

11:10ean, Buenexea-El Punto

12:10ean, Izarra-Tzikiñ

13:10ean, Naiba-Los Tiburones Rojas

14:10ean, Dakara-Txindoki

Olaranbe Kirolegia, Gazteiz, 18:30ean

Aurrera Vitoria- Aldaz H. K.

Nazional III. maila

Igandea 26

Kirolegia, 10:30ean

ISU Leihokak-Eskolapioak Euskal Liga

PILOTA

Ostirala 24

Aiñara, 18:00etan

Intza-Aiñara Errendimendu txapelketa,
eskuz binaka, infantilak

Larunbata 25

Michelin, 11:00etan

Intza-Bergara Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. nagusiak

Ernio, Bidegoian, 16:00etan

Aurrera Saiaz2-Intza Udaberri

txapelketa, eskuz binaka, I. kadeteak

Igandea 26

Gurea, Azkoitia, 10:45ean

Azkoitia-Intza Errendimendu txapelketa,

eskuz binaka, 2. urteko alebinak

ATLETISMOA

Larunbata 25

Belodromoa, Donostia, 10:00etan

LOKEko gazteek proba libreak

dituzte.

Hernani, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalarik Sagar

Lasterra Herri Lasterketan parte

hartuko dute.

Igandea 26

Ormaiztegi, 11:00etan

Herriko hainbat korrikalarik Sahara-

Cross. Salem Hach Embarek

Oroienezkoan parte hartuko dute.

JUDO A

Igandea 26

Bekoerrotza kiroledegia, Lezo, 11:00etan.

LOKEko gaztetxoek alebin mailako

Gipuzkoako txapelketa dute.

SANBOA

Igandea 26

Gijon, 09:00etan.

LOKEko Amaia Curiel, Josu Olmos,

Mario Garrido eta Esteban Martinezek

senior eta junior mailako Espainiako

txapelketan parte hartuko dute.

DUATLOIA

Larunbata 25

Mungia, 16:00etan.

Herriko hainbat duatletek Mungiako

Duatloian parte hartuko dute.

IGERIKETA

Ostirala 24

Pontevedra, 09:00etan eta 17:30ean

Buruntzaldea IKTKo Haitz

Mitxelena eta Itsaso Tolosa Gazteen

Espainiako Txapelketan izango dira.

Haitzek 200 m. tximeleta proba du

eta Itsasok 100 m. bizkar proba.

Larunbata 25

Pontevedra, 09:00etan eta 17:30ean

Buruntzaldea IKTKo Itsaso Tolosa

Gazteen Espainiako Txapelketan

izango da, 200 m. bizkar proban.

Igandea 26

Iruñe, 10:30ean

Buruntzaldea IKTKo gazteek alebin

eta infantilen Kutxa Sariko Finalak dituzte.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 25

Ibaeta, Donostia, 15:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako

kadeteak XXXIV. Ibaeta sarian

parte hartuko dute.

Ostintxu, Bergara, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko jubentia Soraluze E. Koop.

sari Nagusian parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Larunbata 24

Errioxan, 12:30ean

Beltzak Ostadar Jalaio- Rioja R.C.

Infantil federatuko

Igandea 25

Gasteizen, 10:00etan

Beltzak Ostadar Jalaio alebin eta

benjaminek topaketa dute.

Iruñe, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalaio federatu

gabeko infantilek topaketa dute.



— Agenda —

Ostirala 24an, Manuel Lekuona, 20:30ean



Egungo gaietaz barre egiteko hitzordua

Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk Bodologoak antzerkia eskainiko dute. Gaur egungo gai desberdinak astinduko dituzte bakarrizketa nahiz elkarrizketa moduan, hori bai, beti umorea oinarri bezela hartuta. Kasualitatez gainera, emanaldia baino lehen ezkontza bat izan dute eta funtzioa Bodologo bihurtuko da. Elegante, zorrotz, petral eta xeleberr, baina beti umorez gainezka. Euskaraz. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan, 6 euro.

Astigarraga Antzerkia

ASTIGARRAGAKO KULTUR-ETXEA Igandea 26, 17:30ean

Haurrentzako "Sialuk hartz txikiaren bidaia" antzerkia eskainiko da. Sarrera, 2,5 euro.

Hernani Bestelakoa

ATSEGINDEGI PLAZA Larunbata 25, 10:30etik 13:30era

Nahas mahas 2. eskuko azoka antolatuta da, Sanmarko Mankomunitatearen eskutik.

Lasarte-Oria Zinea

Igandea 26, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "Alvin y las ardillas 3" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Igandea 26, 19:00etan

Okendo Zinema taldearen eskutik, helduentzako zinea atalean "Un cuento chino" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.



Astelehena 27, 19:00etan

Danok Kide elkarteak antolatutako Urpeko Zine Zikloaren azken saioa. Gaztelaniaz. Doan.

Igandea 4, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "Malutatxo" animaziozko filma ikusgai izango da. Euskaraz. Sarrera, 3,40 euro.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 24, 23:30ean

Wasabi Projekt taldearen eskutik jazz eta funk doinuak entzungo dira.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostiralea 24, 00:00etan

Metalmania eta Dark Code taldeen

metal kontzertua entzuteko aukera. Sarrera 10 euro.



AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 2, 19:30ean

Rosat eta Ruti hirukotearen musika klasiko emanaldia, Danok Kide elkartearen VII. Musika Topaketen barruan.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Otsailaren bigarren hamabostaldian

Rudy artistaren margoen erakusketa ikusgai izango da.

Usurbil Musika

MIKEL LABOA PLAZA

Larunbata 25, 19:00etan

Usurbilgo Kantu Taldeak kantu-jira egingo du.

Urnieta Antzerkia

SAROBRE ARTE ESZENIKO GUNEA

Igandea 26, 12:00etan

Haurrei zuzendutako "Azken Portua" antzezlana eskainiko du Dejabu Papin Lorategiak. Txotxongilo, antzezle eta zuzeneko musika nahastean ditu ikuskitzunak. Sarrera, 3 euro.

— Herritarren txokoa —

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, otsailaren 27an, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetzte, odolora ordezkaezina da eta odol falta dago!

Aktibazio muskularrari buruzko hitzaldia

Gorka Ipinza entrenatzaile pertsonalak "Aktibazio muskularra eta entrenamendua" hitzaldia eskainiko du, otsailaren 29ean, asteazkenean, arratsaldeko 19:00etan Aktibazio Muskularra Training enpresaren egoitzan, Blas de Lezo 2 behean.

Hitzaldira joateko interesa edo gaiari buruz gehiago jakin nahi duten herritarrek, 607 797 205 telefono zenbakira deitu dezakete.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizako kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 24an, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan.

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, otsailaren 24an Lasarte-Oriako Herrira elkarteak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Igeriketa ikastaroak

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuek martxoan zehar eskainiko dituen helduentzako igeriketa ikastaroen izena ematea ireki du. Ikastaroa martxoaren 5ean hasiko litzateke. Astean 5 saio izango lirakeste astelehenetik ostiraleara, goizeko 10:00etatik 11:00etara.

Izena emateko azken eguna martxoaren 1a, osteguna da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 376 182 zenbakira deitu behar da.

Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

— Hemeroteka —

Duela 999 ale



Txintxarri aldizkariaren laugarren zenbakian Michelingo langileen borroka argitaratu zen.

1993an, krisia zela eta, Enpresako zuzendaritzak birmoldaketa plana aurkeztu zuen. Horren arabera, 629 lanpostu soberan zeuden eta produktzioa gutxitu nahi zuen. Horretarako, aurrejubilazioak eskaini zituen enpresak.

Langile batzordeak azaldu zuenez, neurri horiek jarraituz Lasarte-Oriako enpresa izango zen kaltetuena. Horregatik, ekoizpenaren oreka eta lantegiaren etorkizuna ziurtatu arte, plan industrialak osorik ez negoziatzea adostu zuten. Mobilizazioak ere aurreikusitako ziren zuzendaritza eta langile batzordearen arteko negoziaketek huts egin zutelako.

Herrian kaleratzeek sortutako eragina handia izango litzateke eta, halaber, Udalean ordezkaritza zuten alderdi politikoei haien kezka agertu zuten.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Olga Blanco Bitxigilea

“Bitxiak edozeinek egin ditzake”

■ Martxoaren 8an, osteguna, hasiko da Ttakunek antolatutako ikastaroa ■ Dagoeneko izena emateko epea zabalik da eta gehienez hamabost laguneko taldea osatuko da

Martxoan Ttakun kultur elkarteak bitxiak egiteko tailerra antolatu du eta honetan irakasle arituko da Olga Blanco. Martxoaren 8an hasiko da ikastaroa eta lau ostegunetan zehar burutuko da 19:00etatik 21:00etara Erribera kaleko Ttakunen egoitza zaharrean. Aurten goan bitxiak material birziklatuarekin egingo dira eta dagoeneko izena emateko aukera dago Ttakunen.

Maider AZURMENDI

Bigarren urtea da Olga Blancok hartzen duela bitxigintza ikastaroaren gidaritza eta aurreko berrerrabilerara izango du ardatz.

Zer ikasiko dute ikastaroan parte hartzen dutenek?

Zerotik hasiko gara beraz edozeinek har dezake parte. Erraz egiteko gauzak egingo ditugu, ez da trebetasun berezirik behar. Lehen saioan bakoitzak bitxi bat egiteko gai izango da.

Neskak izaten al dira beti horrelako tailerretan parte hartzen?
Ba egia esan normalean bai

neskak izaten dira denak. Duela gutxi lehen mutila izan nuen ikastaro batean ikasle eta oso ondo moldatzen zen. Berak komentatu zidan asko ligatzen zela horrelako bitxiak egiten.

Azpiramarratzekoa da, neurri handi batean brikolajea dela bitxia egiteko prozesuaren oinarria.

Adinari dagokionez gazteak gehiago izaten al dira?

Gazteak eta helduak. Adinari dagokionez ez dago perfil zehatzik. Taldeak normalean oso anitzak izaten dira. Ikastaroan erabiltzen diren teknikak oso errazak dira eta edozeinek egin ditzake. Gainera adin-



tu egin gairela. Bitxi pertsonalagoak nahi ditugu, ezberdinak, besteek ez dituztenak eta horretarako bidea norberak bere bitxiak egitea da.

Zer esango zenuke jendeak ikastaroan parte har dezan?

Hasteko gogoreakin etortzeko eta lau saiotan asko ikasi daitezkeela. Ikastaroaren nondik norakoei dagokionez, gehienez hamabost laguneko taldea osatuko da, kurtsuaren prezioa 20 eurokoa izango da materiala barne, zenbait gauza berriak, erositakoak izan behar direlako, eta tresnak etxean dituenak ekartzeko. Hiru motatako aliketak erabiliko ditugu moztekoak, biribiltzekoak eta zapaltzekoak. Noski, bertan egongo dira denon erabilerarako baina norbaitek etxean edukiko balitu ekartzea, horrela ez luke hauek erabiltzeko itxaron beharko. Gainontzean ikastaro polita izango dela esan eta animatzeko.

duentzat bereziki zaletasun ona izan daitezke bitxigintza eskutako arintasuna, trebetasuna mantentzen laguntzen duelako.

Aurtengoan birziklapena landuko duzue ezta?

Bai Ttakunen egiten dudan bigarren ikastaroa izango da hau eta interesgarria irudituko zait honetan berrerrabileraren sustatzea. Batetik ingumenaren ikuspegitik, gauzei bigarren erabilpen bat eman behar zaie-

la konturatu behar garelako eta bestetik, krisia dela eta bitxiak egiteko materialak ez direlako beti merkeak. Posible da diru gutxirekin gauza politak egitea.

Modan al dago bitxiak egitearena? Zergatik?

Kuriosoa da baina egun nahikoa merke erosi ditzakegu mota guztietako bitxiak. Aukera zabala daukagu dendetan eta prezioak ere askotan ez dira altuak baina nik uste dut asper-

Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean

Jaunartze
Argazki erreportajeak

Eztipphoto

Golf Plaza 4, Atsobakar. Tlf: 943 900 565

Zatoz
eta informa zaitez

www.eztipphoto.com